

## IRAKASLEEN GESTIORAKO 2022/2023ko IBILTORRIA

Betetzeko Irakasleen Kudeaketarako Araudia onartu zuen Gobernu Kontseiluaren 2010eko otsailaren 11ko erabakia (2010eko martxoaren 15eko EHAA), epeak zehaztu behar dira eskari hauek egiteko: plaza berrietarako, plaza hutsak betetzeko, irakasle bisitariak kontratatzeke, lizentzia sabatikoetarako, eta irakasle-ikertzaileen lanpostuen zerrendako aldaketetarako.

Sailak berrantolatzeko prozesuaren barruan, eta kontuan hartuta Sailen Esparru Arautegiko azken xedapenetako lehenengoak dioena, 2022ko abenduaren 31ra arte sail atal izatea erabaki duten sailek edo jakintza arloek atal banakako antolakuntza unitate gisa jardun ahal izango dute, irakaskuntza planifikatzeko eta irakasle-ikertzaileei lotutako baliabideak eskatzeko, Gobernu Kontseiluak 2019ko irailaren 26an onartu zuen sailak berrantolatzeko memoriaren arabera.

Hortaz, epe hauek ezarri dira 2022/2023 ikasturterako:

### **Lehenengoa.- Behin betiko bajagatik hutsik dauden plaza iraunkorrak aldatzea.**

**Irakasle iraunkorren plazak** (unibertsitateko edo unibertsitate eskolako katedradunak, irakasle osoak, unibertsitateko edo unibertsitate eskolako irakasle titularrak, irakasle agregatuak edo irakasle lankide iraunkorrak) hutsik badaude datako egunean titularrek behin betiko baja hartu dutelako (erretiroa, lanerako ezintasuna, heriotza, borondatezko uko egitea eta abar), edo hutsik geratuko badira arrazoi horregatik 2022ko abenduaren 31 baino lehen, plaza horiek aldatzeko eskaria egin beharko dute sailek, plaza horietan ordezkot bat egon zein ez egon.

Ez bada egiten plaza hutsen bat betetzeko eskaria, ulertuko da plaza hori ez dela beharrezkoa (nahiz eta ordezkot bat egon bertan) eta amortizatu egingo litzateke.

Eskaria egiterakoan aldatu egin ahal izango dira plaza berriari dagozkion ikastegia, langunea, jakintza arloa eta/edo hizkuntza eskakizuna.

Plazak aldatzeko eskariak egiteko **epe orokorra** 2022ko urtarrilaren 7tik 31ra artekoa izango da (egun biak barne), eta horretarako **11. eranskina** bete beharko da. Derrigorrezkoa izango da sailaren eta ikastegiko batzarraren aldeko txostenak izatea eskaera aurkezten den egunean

Beste epe bat irekiko da, maiatzaren 2tik 31ra artekoa, epe orokorraren ondoren gertatu ahal diren bajetarako.0}

### **Bigarrena.- Behin betiko bajagatik hutsik dauden aldi baterako irakasleen plazak**

*Irakasle ez-iraunkorren plazak* (irakasle elkartuak, irakasle laguntzaileak eta irakasle atxikiak) hutsik badaude titularrek behin betiko baja hartu dutelako, plaza horiei buruzko proposamenak ikasturteko **edozein unetan** egin ahal izango dituzte sailek.

Plazak lehiaketa publikoaren bidez betetzeko eskariak egiteko **8. eranskina** beteko da, adierazita epaimahaiaren osaera.

### **Hirugarrena.- Irakats ahalmena handitu edo murriztea.**

Irakats ahalmena aldatzeko eskariak egin nahi dituzten sailek, dela plaza berriak sortuta (10. eranskina) dela lanpostuen zerrenda aldatuta (hala arduraldia handitu edo murriztea nola aldi baterako plazak finkatuta (11. eranskina), **2022ko urtarrilaren 7tik 31ra** arteko epea izango dute (egun biak barne), eta kasuan kasuko eranskina bete beharko dute horretarako.

### **Laugarrena.- Irakasle katedradunen eta irakasle osoen plazak.**

Unibertsitateko katedradunen plaza berriak edo irakasle osoen plaza berriak eskatu nahi dituzten sailek **ekainaren 15etik uztailaren 15era** bitartean aurkeztu beharko dituzte eskariak (egun biak barne), kasuan kasuko akreditazioa atxikita. Gogorarazten zaie sailei **eskari bakar bat** egin dezaketela, baldin eta ez badira sailak berrantolatzeko prozesuaren ondorioz atalak dituzten sailak. Horrelakoetan, sail atal bakoitzak eskari bat egin ahal izango du.

Katedra berri bat eskatzeko **5. eranskina** beteko da, eta irakasle osoen kategoriako plaza bat sortzea eskatzeko **6. eranskina**.

### **Bosgarrena.- Irakasle agregatuen, irakasle titularren eta ikertzaile doktore iraunkorren plazak.**

Sailek eskatu ahal izango dute irakasle atxikiaren plazak irakasle agregatuen edo irakasle titularren plaza bihurtzea eta lan eskaintza publikoan sartzea, bai eta irakasle agregatuen plazak irakasle titularren plaza bihurtzea eta lan eskaintza publikoan sartzea ere. Eskariak **urtarrilaren 7tik 31ra** bitartean egin beharko dira (egun biak barne), eta horretarako **11. eranskina** bete beharko da.

Sailek eskatu ahal izango dute Ramon y Cajal programan edo ministerioak onartutako bikaintasun programetan parte hartzen duten ikertzaileak egonkortzeko plazak sortzea, betiere ikertzaileok I3 agiria badute. Eskariak **urtarrilaren 7tik 31ra** bitartean egin beharko dira (egun biak barne), eta horretarako **10. eranskina** bete beharko da.

### **Seigarrena.- Integrazioak eta nobazioak.**

Unibertsitate eskolako irakasle titular plaza bat betetzen ari diren pertsonen unibertsitateko irakasle titularren kidegora aldatzeko eskaria egin ahal izango dute ANECaren akreditazioa lortu eta gero, bat etorrita Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 2. xedapen gehigarrian adierazitakoarekin (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak emandako idazkeran). Eskaria **edozein unetan** egin ahal izango dute, akreditazio agiria atxikita.

Bestalde, bat etorrita irakasle iraunkorrak hautatzeko eta kontratatuzko prozedura arautzen duen testuko lehenengo xedapen iragankorreko 10. atalak dioenarekin eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak dioenarekin, irakasle agregatu izateko akreditazioa (UNIBASQ) edo lan kontratudun irakasle doktore iraunkor izateko akreditazioa (ANECA) lortu duten pertsonen kontratuak nobatzeko eskaria egin ahal izateko dute, **edozein unetan**, akreditazio agiria atxikita eskaerari.

Irakasle laguntzaile ez-doktoreen kategoriako plaza bat arauz betetzen ari den pertsona batek irakasle atxikia izateko akreditazioa lortzen badu, horretarako dituen bost urteen barruan, irakasle hori betetzen ari den plaza irakasle atxikiaren kategoriako plaza bihurtzea eskatu beharko du sailak, **edozein unetan**. Horretarako **11. eranskina** bete beharko du, eta akreditazio agiria atxiki. Kasu

honetan ez da proposatu behar epaimahairik, baina beharrezkoak izango dira bai sailaren bai ikastegiaren aldeko txostenak.

### **Zazpigarrena.- Ikastegia, saila, jakintza arloa edo hizkuntza eskakizuna aldatzea.**

Ikastegia, saila, jakintza arloa edo hizkuntza eskakizuna aldatzeko lanpostuen zerrendan egiten diren aldaketek lauhilekoaren hasieran izaten dituzte ondorioak. Hortaz, horrelako aldaketaren bat egin nahi duten sailek ondoren aipatzen diren epeetan bidali beharko dituzte eskariak, **11. eranskina** beteta, kontuan hartuta zein datatan izango dituzten ondorioak. Epeak hauek dira:

- **2022ko urtarrilaren 7tik 31ra** bitartean (egun biak barne), ondorioak 2022ko irailaren 1etik aurrera izango dituzten aldaketetarako.
- **Irailaren 1etik 30era** bitartean (egun biak barne), ondorioak 2023ko otsailaren 1etik aurrera izango dituzten aldaketetarako.

Plazen hizkuntza eskakizunak aldatzeko lanpostuen zerrenda aldatzea eskatu nahi duten sailek hizkuntza eskakizunaren aldaketa justifikatzen duen txostena bidali beharko dute eskariarekin batera.

### **Zortzigarrena.- Irakasle elkartuen plazetarako deialdia.**

Irakasle elkartuen plazetarako deialdia egitea eskatuko dute sailek 2022. urtean betetzen bada irakaslea gehienez ere kontratatuta egon daitekeen denbora tartea (hiru urte). Horretarako **8. eranskina** bete eta aurkeztu beharko da, **2022ko urtarrilaren 31 baino lehen**. Eskariarekin batera aurkeztuko beharko dira, nahitaez, epaimahaiaren osaera eta plazaren profil espezifikoak osatzen duten irakasgaiak.

### **Bederatzigarrena.- Irakasle emerituak, irakasle bisitariak eta itzal handiko irakasleak.**

Irakasle emerituak kontratatzea edo oraingo kontratuak luzatzea eskatu nahi duten sailek **2022ko otsailaren 14tik martxoaren 14ra** arteko epean aurkeztu beharko dituzte eskariak.

Irakasle bisitariak eta itzal handiko irakasleak kontratatzeko eskariak ere **2022ko otsailaren 14tik martxoaren 14ra** arteko epean egin beharko dituzte, lanean lehenengo lauhilekoan hasiko badira (2022ko iraila eta 2023ko urtarrila bitartean); aldiz, bigarren lauhilekoan hasiko badira (2023ko urtarril eta ekaina bitartean), **2022ko urriaren 3tik 28ra** arteko epean egin beharko dituzte eskariak.

### **Hamargarrena.- Ikerbasqueko irakasle bisitariak**

Sail batek Ikerbasqueko irakasle bisitariak edo itzal handiko irakasleak izan nahi baditu atxikita, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Ikerbasque Fundazioak 2010eko ekainaren 4an izenpetu zuten ikertzaileei buruzko lankidetzaren hitzarmena dela bide, eskaria aurkeztu ahal izango du **hilabete bakoitzeko 1etik 5era** bitartean, beharrezkoak diren agiri guztiak erantsita.

### **Hamaikagarrena.- Lizentzia sabatikoak**

Lizentzia sabatikoetarako eskariak **2022ko otsailaren 14tik martxoaren 14ra** bitartean egingo dira, eskaria lehenengo lauhilekorako bada; eta **2022ko urriaren 3tik 28ra** bitartean, eskaria bigarren lauhilekorako bada. Eskariekin batera

beharrezkoak diren agiri guztiak aurkeztu beharko dira, eta argi adierazi eskatzailea ordezkatu egin behar den ala ez.

### **Hamabigarrena.- Ezohiko epeak**

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari baimena ematen zaio adierazitako epeak zabaldu edo aldatzeko, oro har edo sail jakin batzuetarako, irakats plangintzarako egutegia, programa kontratu bat, edo bestelakoren bat betetze aldera.

Oro har, ez da eskaririk onartuko ez bada aurkeztu ibiltorri honetan zehaztutako epearen barruan. Hala ere, behar bezala justifikatutako kasuetan, eta salbuespen moduan, epearen barruan egin ezin izan diren eskariak aurkeztuko dizkio Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak Gobernu Kontseiluari, onar ditzan. Horrelakoetan, saileko proposamenarekin batera txosten bat aurkeztu beharko da, eskaria epean ez aurkezteko izan diren arrazoiak behar bezala azalduta.

### **Hamahirugarrena.- Eskariak aurkezteko era.**

**[gestion.vicer.pdi@ehu.eus](mailto:gestion.vicer.pdi@ehu.eus)** helbidera bidalitako eskariak baino ez dira hartuko kontuan.

LABURPEN TAULA	EPEA
1.- Behin betiko bajagatik (erretiroa, norberaren borondatez lanpostua uztea, heriotza eta abar) hutsik dauden irakasle iraunkorren plazak aldatzea	Orokorra: urtarrilaren 7tik 31ra Ezohikoa: maiatzaren 2tik 31ra
2.- Hutsik dauden aldi baterako irakasleen plazak betetzea (laguntzaileak, atxikiak eta elkartuak)	Edozein unetan
3.- Irakats ahalmena aldatzea plaza berriak sortuta, aldi baterako plazak finkatuta edota arduraldia handitu zein murriztuta	2022ko urtarrilaren 7tik 31ra
4.- Irakasle katedradunen eta irakasle osoen plazak	2022ko ekainaren 15etik uztailaren 15era
5.- Irakasle agregatuen, irakasle titularren eta ikertzaile doktore iraunkorren plazak	2022ko urtarrilaren 7tik 31ra
6.- Integrazioak eta nobazioak	Edozein unetan
7.- Ikastegia, saila, jakintza arloa edo hizkuntza eskakizuna aldatzea	- Urtarrilaren 7tik 31ra (aldaketak 2022/2023 ikasturteko lehenengo lauhilekoan izango baditu ondorioak) - Irailaren 1etik 30era (aldaketak 2022/2023 ikasturteko bigarren lauhilekoan izango baditu ondorioak)
8.- Irakasle elkartuen plazetarako deialdia, gehienez ere kontratatuta egon daitekeen denbora tartea betetzeagatik	Urtarrilaren 31ra arte
9.- Irakasle emerituak (kontratu berriak edo kontratuen luzapena), irakasle bisitariak eta itzal handiko irakasleak	2022ko otsailaren 14tik martxoaren 14ra arte 2022ko urriaren 3tik 28ra (lanean 2022/2023ko bigarren lauhilekoan hasiko diren bisitariak)
10.- Ikerbasqueko irakasle bisitariak	Hilabete bakoitzeko 1etik 5era
11.- Lizentzia sabatikoak	2022ko otsailaren 14tik martxoaren 14ra (lizentzia hurrengo ikasturteko lehenengo lauhilekorako bada) 2022ko urriaren 3tik 23ra (bigarren lauhilekorako bada).